



2016KO URTARRILAREN 26KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko urtarrilaren hogeita seian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Ja-bier Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2015eko abenduaren 22an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebaz-penen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- LAZKAOKO GAZTE LAGUNTAILEENTZAT BEKAK.-

Lazkaoko gazte laguntzaileentzat, beharrik handiena duten herrialdeetan garape-neko lankidetzak ekintzetarako sentiberatzea eta kulturen elkartasun baloreak sustatzeko, beka programetarako diru laguntzen oinarrien proposamena egiten du Gizarte Zerbitzuen Batzordeak.

Osoko Bilkurak, gaia azertu ondoren, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Lazkaoko gazte laguntzaileentzat beka emateko oinarriak, bere espedientean daude-nak, hasierako izaeraz onartzea.
- 2.- Oinarri hauek jendaurrean jartzea 30 lan eguneko epean.
- 3.- Jendaurreko erakustaldi epean inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordioa behin betikotzat hartutakoa bihurtuko da akordio espres berri baten beharrik gabe.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-





LAZKAOKO UDALA

LAZKAOKO UDALA

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hamabi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature in blue ink]

